

MAKALOA-KO ZERRIA¹

JACK LONDON



© Marjinalia Bilduma

© Itzulpena: X. Galarreta

1999. urtea

Lege-Gordailua: SS-1315/99

¹ **Zerria.** iz. **1.** Zorua estaltzeko espartuz edo ihiz eginiko ehuna, bereziki ate aurrean ipintzen dena. *Zerria lastozkoa da, eskaratz aldean oinazpian erabiltzen duguna.* **2.** Ik. **tapiz.** (Hiztegi Entziklopedikoa. Elhuyar)

Lurralde beroetako emakume gehienekin gertatzen ez den bezala, Hawaii-koak duintasunez eta nobleziaz zahartzen dira. Kosmetikoen engainurik gabe eta denboraren eragina zuhurtziaz ezkutatu gabe, “hau” zuhaitzaren azpian eserita zegoen emakumea ikusita, erraz irudituko litzaioke adituari —edozein lurraldetakoari uharte hartakoari izan ezik— gehenez berrogeita hamar-bat urteko emakumea zela. Hala ere, haren seme-alabek, ilobek eta duela berrogei urtetik gora senartzat zuen Roscoe Scandwell-ek bazekiten hirurogeita lau urte beterik zituela eta hurrengo ekainaren 22an hirurogeita bostak beteko zituela. Hala ere, ez zirudien adin horretakoa zenik —aldizkaria irakurtzeko eta soriropilean jolasean aritzen ziren dozena erdi umeei begirada bat botatzeko, sudur gainean betaurrekoak jarrikeri ere.

Oso irudi jatorra osatzen zuen, etxe baten tamainakoa zen “hau” zuhaitz urtetsua bezain jatorra, teilapean eserita dagoenaren antzera, ematen zion itzala halakoxe zabala eta eroso zelarik, soriropil lodiko zelaia bezain jatorra —oin karratua berrehun dolarretan baloraturik zegoena—, lur bannerrantz hedaturik —orobat duin, jator eta garestia zen eraikineraino—. Beste aldeko norabidean, ehun oin altuerako kokondo osaturiko girlanda baten adarretatik agerturik, ozeanoak distira egiten zuen —zeruertzerantz abiatu ahala, urdina baino indigo

bilakatzen zen; eta arrezifearen barruan, jade-koloretik ateratzen diren zeta-antzeko tonuak bereganatzen zituen, turmalinarekin eta horlegiarekin batera.

Martha Scandwell-ek zituen sei etxeetariko bat zen hura. Hirikoa, handik milia gutxira kokatuta, Nuanu etorbidean, Honolulu-n, lehendabiziko eta bigarren ur-jauzien artean, benetako jauregia zen. Gonbidatu-aldra batek ezagutu zituen Tantalus-eko egoitzaren erosotasuna eta alaitasuna, sumendiaren ondoan zeukan bosgarrena, “mauka” izenekoa (lehorreko etxea) eta “makai” izenekoa (itsas ondoko etxea), Hawaii uharteetan denak. Edonola ere, Waikiki-ko bizitegi hau ez zen bat ere makala —edertasun, duintasun eta luxuari zegokienez.

Japoniako bi lorazainek hibiskoak mozten ziharduten; hirugarrenak, berriz, “pitahay” palaxuari azken ukituak ematen zizkion esku trebeaz —laster, gauetz, bere loraldi misteriotsua eskainiko zuen—. Japoniarra ere bazen zerbitzaria, drillezko jantzi zuri dotorea jantzita, etxe aldetik hurbiltzen ari zen te-ontziteria ekarriz eta jatorri bereko dontzeila batek jarraituta, tximeleta bezain polita, haren arrazako arropa tipikoak ematen zion graziaz eta tximeleta dirdartsuaren parean, bere andrea zerbitzatzeko lehiaz. Beste dontzeila bat, hau ere japoniarra, zelaia zeharkatzen ari zen besaldi bat felpazko toailak zeramatzala, kabinen alderantz —bainu-arropak jantzita umeak ateratzen hasiak ziren

alderantz—. Urruntxeago, ur-bazterrean eta kokondoan azpian, bi umezain japoniarrek, arropa xaloak jantzita —euren “yeeshon” zuriak eta molde zuzeneko frakak—, ilea bizkarretik txirikordatuta, kotxetxoan zegoen umea zaintzen zuten.

Haiek guztiak —mirabeak, umezainak eta haurrak— Martha Scandwell-enak ziren. Haren sei iloben azalaren kolorea bat-bera zen —Hawaii-ko tonu berezi hori, uharteetako eguzki gogorraren azpian etengabe egotearen ondorioa dena—. Zortzirena eta hamaseirena hawaiiarrak ziren, hau da, haien azaleko zazpi zortzirenak edo hamabost hamaseirenak odol zuriz osaturik zeuden, Polinesiakako brontze urreztatua erabat ezabatu gabe baina. Edonola ere, behatzaile adituak soilik igarriko zukeen umetxo haiek ez zirela guztiz zuriak. Bai aitona bai amona kastakoak zituen. Roscoe Ingalaterra Berriko familia puritano batetik zetorren zuzenezuzenean; Martha, berriz, idatzizko hizkuntza uhar-te haietara heldu baino mila urte lehenago jada kantatzen ziren Hawaii-ko errege-erreginen genealogietatik zetorren, bestea bezain zuzenean.

Urrunean ibilgailu bat gelditu zen; gehienez hirurogei urte izatea ematen zuen emakumea kotxetik jaitsi eta osasunez betetako berrogei urteko eme baten zalutasunez zeharkatu zuen zelaia, egiatan hirurogeita zortzi urte bazituen ere. Martha abegi egitera joan zitzaion herriko amultsutasun tipikoaz: besarkadak, musuak ezpainetan, aurpegi adierazgarriak eta orobat ere musu adierazgarriak, gehiegiz-

ko emozioaren zintzotasuna eta zabaltasuna isladatzen zituztenak. Agur-trukaketan, ia zentzugabe-ko galderak nahasten ziren: euren osasun-egoerak, osabarenak, urliarenak, sendiarenak eta ez dakit zenbaten gehiagorenak, harik-eta, elkartzeak eragindako lehen hunkipenak gainditurik bi emakumeak eseri eta te-kikaren gainetik elkarri begiratu zioten arte. Edozeinek pentsatuko zuen elkar ikusi gabe denbora luzea zeramatela, banandu zirenetik pare bat hilabete baino ez igaro arren. Batak hirurogeita lau urte eta besteak hirurogeita zortzi urte zituzten, baina elkar ulertze biribil horren arrazoia euren izatearen laurden bat bihotz hutsa izatean zetzan —Hawaii-ko bihotza, eguzkiz eta maitasunez bero-beroa.

Umeeek Bella izeba inguratu zuten marea goraren moduan eta behar den bezala besarkatuak eta musukatuak izan ziren, umezainekin batera ur alderantz abiatu ziren arte.

—Haizea baretu zela ikustean, hondartzan egun batzuk igarotzea erabaki nuen —azaldu zion Marthak.

—Eta bi aste daramatzazu hemen —esan zuen Bella-k, bere ahizpa txikiari maitakor irri eginenez—. Gure anaia Edward-ek esan zidan. Kaira joan zitzaidan bila eta behin da berriz eskatu zidan Louise, Dorothy eta bere lehen biloba ikustera joateko. Harekin txoraturik dago.

—Jainkoarren! —esan zuen Martha-k—. Bi astebete jada! Ohartu gabe igaro zaizkit!

—Non dago Annie? Eta Margaret? — galdetu zuen Bella-k.

Martha-k soin handiak jaso zituen, bi andere apetatsu haiekiko sentitzen zuen maitasun handi eta jasankorra adierazteko —biak haren alabak ziren, eta umeak zaintzeko ardura zuten arratsalde hartan.

—Margaret Zirkulu Naturalistaren bilera batean dago. Zuhaitzak eta hibiskoak landatu nahi ditu Kalalaua etorbidearen alde banatan —esan zuen—. Eta Annie laurogei dolar balio duten pneumatikoak higitzen ari da, Gurutze Gorri-rako hirurogeita hamabost dolar biltzeko asmoz. Gaurko eguna onegintzan erabili dute.

—Roscoe harro egongo da —esan zuen Bella-k, ahizparen begietan azaldutako poztasun-isladari erreparatuz—. San Frantziskon jakin nuen, Ho-o-la-k lehen dibidendua ordaindu du. Gogoratzen al duzu konpainia horretan mila dolar inbertitu nuenean, Abbie-ren ume txiroei laguntzeko? Garai hartan, bakoitzak hirurogeita hamabost zentabo balio zuen; eta hamar dolarrera igoz gero, saldu egingo nituzkeela esan nuen.

—Eta denek egin zuten barre zutaz eta gainerako akziodunez —berretsi zuen Martha-k—.

Baina Roscoe-k ez zuen dudarik izan. Eta gaur egun, hogeita lau dolarretan ordaintzen dira.

—Nireak hogeitan hain zuzen saldu nituen kablegramaz, untzitik —jarraitu zuen Bella-k—. Eta orain Abbie-k jantziak egiten dihardu jo eta ke. Parisa doa Tootsie-rekin eta May-rekin.

—Eta Carl? —galdetu zuen Martha-k.

—Yale-n ikasketak bukatuko ditu, zalantzarik gabe.

—Halaxe egingo zuen edozelan ere, eta zuk ondotxo dakizu —eraso zion Martha-k graziaz, orduko esamolde ezagun bat erabiliz.

Unibertsitateko ikasketak bere lagun baten semeari ordaintzen saiatu izanaz erruduna zela aitortu zuen Bella-k, eta atseginez erantsi zuen:

—Dena den, Ho-o-la-k ikasketak ordaintzea askoz politagoa izan da. Dena den, ondo begiratu gero, Roscoe-k ordaindu izan balitu bezala da, bera izan baitzen inbertsio hori egitea aholkatu zidana.

Inguruan poliki-poliki begiratu zuen, ez soilik haren begiek ikusten zuten guzti haren edertasunaz, erosotasunaz eta bakeaz miretsita, baizik eta baita uharte guztietatik sakabanaturiko antzeko oasiei zerien edertasunaz, erosotasunaz eta bakeaz miretsita ere. Pozik hasperen egin eta esan zuen:

—Gure senarrek, ezkontzara ekarri genuena ondo administratzen jakin dute.

—Eta zorionez... —hasi zen Martha esaldia ustekabeko zakartasun sumagarriz eteten.

—Eta zorionez, denoi ondo joan zaigu, Bella-ri izan ezik —jarraitu zuen honek, ahizparen esaldia barkamen-tonuaz amaituz.

—Zure ezkontza hura benetan penagarria izan zen —xuxurlatu zuen Martha-k, eztitasun eta urriki handiz—. Oso gaztea zinen. Osaba Robert-ek ez zintuen behartu behar izango.

—Hemeretzi urte baino ez nituen —onartu zuen Bella-k—. Dena den, ez zen George Castnerren errua izan. Begira hilobitik zenbat gauza egin dituen nigatik. Robert osaba ez zebilen oker. Baze-kien George etorkizuna zuzen ikusteko gai zela eta kementsua eta gogotsua zela. Nahala-ko urek eskaintzen zuten aukera garai hartan jada ikusten jakin zuen, eta hartaz geroztik berrogei ta hamar urte igarota daude. Denek uste izan zuten bazkalekuak erostea beste helbururik ez zuela, benetako asmoak ur horien eskubideak lortzea baziren ere, eta orain denok dakigu bete-betean asmatu zuela. Batzuetan, gaurko errentek ematen didaten etekinei buruz pentsatzeak lotsa ematen dit. Ez. Hala eta guztiz ere, gure ezkontzaren porrota ez diot George-ri leporatzen. Bizi izan balitz, gaur arte

zoriontsua izango nintzela badakit, horretaz ziur nago. —Burua, poliki-poliki, ezker-eskuin mugitu zuen—. Ez zen haren errua izan. Ezta inorena ere. Nirea ere ez.

Haren ahots-tonuaren eztitasun nostalgi-koak, geroago ahoskatuko zituen hitzei zerien gogortasuna kendu zien:

—Norbaitek erantzukizunik izatekotan, John-ek izango du.

—Osaba John-ek! —hots egin zuen Martha-k harri eta zur—. Galde egin izan balidate, Robert zela esango nukeen. Baina osaba John...

Bella-k irri egin zuen motel baina ziurtasunez.

—Robert izan zen George Castner-rekin ezkontzera behartu zintuena —ekin zion osterera ere ahizpak.

—Egia —berretsi zuen Bella-k—. Gakoa, ordea, ez dago senarrarengan, zaldi batengan baik. Osaba John-i zaldi bat uzteko eskatu nion eta hark hala egin zuen. Horrela gertatu zen dena.

Bi emakumeen artean isilune astun eta iluna gertatu zen; bien bitartean, hondartzatik umeen ahotsak eta asiar umezainen kexa larderiatsuak ai-legatzen ziren. Martha Scandwell-i sentsazio sutu

eta dardartsua oldartu zitzaion, eta bat-batean, erabaki bat hartu zuen. Umeak keinu batez aldendu zituen.

—Utz gaitzazue, haurrok, utz gaitzazue. Amonak eta Bella izebak hitz egin nahi dute.

Eta ume-ahotsen tremolo ezti eta zorrotza zelaitik zehar urruntzen zen bitartean, min sekretu batek ahizparen aurpegian zizelatutako tristeziaren zirriborroak ikusi zituen Marthak bere bihotzeko begiez. Berrogeita hamar urte zeramatzan zimur horiek ikusten. Mende erdi bat isiltasun hura haus-teko, Hawaii-ko eztitasuna altzairuz jantzi behar izan zuen.

—Bella —esan zuen—. Inoiz ez genuen ezer jakin. Sekula ez zenuen horretaz hitz egin. Baina, sarritan pentsatu izan dugu...

—Inoiz ez zenuten ezer galdetu —xuxurlatu zuen Bella-k, esker onez.

—Bada gaur, azkenik, galde egingo dizut. Gure azkenera iritsi gara. Entzun itzatzu. Batzuetan, ume horiek nire ilobak direla pentsatzeak beldurra ematen dit; atzo bertan beste ume bat baino ez nintzen ta oran nire ilobak dira. Hankak eta bihotza arinak nituen; zaldiz sekula ibili den, olatuen artean jolasean inoiz aritu den, itsas beheran “opihis”ak bildu dituen eta dozena bat maitalez barre egin duen emakumerik axolagabeena nintzen.

Orain, gure amaieran, ahaz dezagun dena... ahizpak garela izan ezik.

Bi emakumeen begiak ihintz antzeko tantaz lausoturik zeuden. Bella-k dardar egiten zuen nabarmen.

—George Castner-ren errua zela uste genuen —jarraitu zuen Martha-k— eta zehaztasunak igartzen genituela ere iruditzen zitzaigun. Hura gizon hotza zen eta zu, berriz, emakume hawaiiar grinatsua. Zurekin anker jokatu zuen. Gure anaia Walcott-en ustez, jo egiten zintuen...

—Ez, ez! —eten zion Bella-k—. George Castner sekula ez zen ez ankerra ez basatia izan. Behin baino gehiagotan, hala izatea desiratu baren ere. Ez ninduen inoiz jo, ez zidan inoiz mehatxurik egin, ez zidan inoiz oihuka hitz egin. Gure artean (sinets dezakezu, ahizpa? mesedez, sinetsidazu) sekula ez genuen hitz larririk erabili, ezta haserre-keinurik ere. Baina berea zuen etxe hura, Nahala-ko etxea alegia, goibela zen. Han zegoen kolore bakarra grisa zen. Gris hotza zen, izotza bezalakoa; ni, ordea, eguzkiaren, lurraren, odolaren eta txorien kolore guztiakin distiratsen nuen. Nahala hotza zen, hotz grisa, nire senarraren hotz bera. Zuk, Martha, badakizu gizon grisa zela. Ikastetxean ikusten genituen Emerson-en erretratu haiek bezalaxe. Larruazala grisa zuen. Ez eguzkiak, ez aireak, ez zamalkatzen igarotako orduak lortu zuten haren

larru-azala belztea. Eta barrutik kanpotik bezain grisa zen.

Nik hemeretzi urte baino ez nituen osaba Robert-ek ni ezkontzea erabaki zuenean. Nola jakin nezakeen zer gertatzera zihoan? Osaba Robert-ek hitz aspertu bat izan zuen nirekin. Hawaii-ko lurrak eta aberastasunak “haole-en” (zurien) eskuetara pasatzen ari zirela esan zidan. Hawaii-ko buruzagiek ezer gutxi egiten zuten lapurreta horren aurka. Gizon zuriekin ezkontzen ziren hawaiiar emakume aberatsek euren aberastasunak miragarriro ugalduta ikusten zituzten, euren senarren administraziopean. Gure aitona Roger Wilton-i buruz hitz egin zidan, amonak ezkontzarako jarritako lurrak handitu eta Kilohana Arrantxoak bertan eraikin zuen...

—Garai hartan, Parker Arrantxoak baino ez zion aurrea hartzen —eten zion Martha-k, harro.

—Hil baino lehen, gure aita gure aitona bezain zuhurra izan balitz, Parker Arrantxoko lurren erdiak Kilohana-ra pasako zirela esan zidan. Esan zidan haragia ez zela inoiz hain merkea izango eta Hawaii-ko etorkizuna azukrean zegoela. Orduz geroztik berrogeita hamar urte igaro dira eta ikus dezakezunez denborak arrazoia eman dio. Castner “haole” gazteak etorkizuna igartzen ere bazekiela eta oso urrun iritsiko zela esan zidan; familiako emakumeak ugariak ginela eta Kilohana-ko lurrak, legez, gizonezkoek jarauntsiko zituztela.

George-rekin ezkonduz gero, etorkizun bikaina ziurtaturik izango nukeela.

Nik, garai hartan, hemeretzi urte besterik ez nituen. “Royal Chief School”etik atera berria nintzen, zeren garai hartan neskatoak oraindik ere ez baikinen Estatu Batuetara ikastera joaten. Zu izan zinen, Martha, Amerikan hazitako lehen emakumeetariko bat. Zer nekien nik maitasunari buruz, gizonari buruz, ta are gutxiago ezkontzari buruz? Emakume guztiak ezkondu egiten ziren. Horize zen euren bizitzako helburua. Ama, amona, familiako emakume guztiak oso aspalditik ezkondu ziren. George Castner-ren emaztea izatea zen nire patua bizitza honetan. Osaba Robert-ek aholku hori eman zidan eta nik banekien gizon zuhur eta burutsua zela. Beraz, Nahala-ko etxe grisera nire senarrarekin bizitzera joan nintzen.

Gogoratuko zara hartaz. Han ez zegoen zuhaitz bakar bat ere. Soil-soilik zelai uhintsuak, menditzar arrokatsuak atzean, itsasoa gure oinetan, eta haizea, Waimea-ko eta Nahala-ko haizeak, eta baita “kona” haizeak ere. Ez zitzaizkidan axolatuko (Kilohana-n axolatzen ez zitzaizkidan bezala, Manan inori axolatzen ez zitzaizkion bezala), Nahala eta orobat ere nire senarra hain gris izan ez balira. Bakarrik geunden. Glenn-darren arrantxoak gobernatzeaz arduratzen zen, besteak Eskoziara joanak baitziren. Urtean mila eta zortzirehun dolar ematen zizkioten horren truke, gehi haragia, zaldiak, unaien zerbitzua eta etxebizitza.

—Oso soldata altua garai haietan —esan zuen Marthak.

—George Castner izateko eta egiten zuen lana kontuan hartuta, oso gutxi zen —esan zuen Bella-k bere senarraren alde—. Harekin hiru urte bizi izan nintzen. Goiz bakar batean ere ez zen goizeko laurak pasata jaiki. Glenn-darrei dagokienez, fideltasunaren beraren irudia zen. Gehiegikeriaraino ondradua izanik, kontu-liburuetan azken penikea ere justifikatzen zuen. Neurritz gaineko denbora eta indarrak xahutzen zituen zeregin hartan. Beharbada, hori izango zen gure bizitza hain gris bilakatu zuena. Baina, aditu ondo, Martha. Ordaintzen zizkioten mila eta zortziehun dolar horietatik mila eta seiehun aurrezten zituen urtean. Pentsa ezazu! Gu biok urtean berrehun dolarrekin bizi ginen. Zorionez, ez zuen erretzen; ezta edaten ere. Baina diru horrekin ere jantzi egin behar genuen. Nik neure arropa egiten nuen. Atera kontuak. Egurra mozteko ardura kenduta, gainerako lanak nire ardura ziren. Nik egiten nuen ogia, nik egiten nuen harrikoa...

—Zu, jaio zinen egunetik morroiz eta neska-gezuek inguraturik egon zinen hori —urrikaldu zitzaion Martha—. Kilohana-ko arrantxoan morroi-ostea zegoen.

—Mixeria, eguneroko eskasia eta premia zen okerrena —hots egin zuen Bella-k—. Infinitu-

raino iraunarazitako libera kafe haiek! Erratzak zeharo birrinduta, berria erosi baino lehen! Eta haragia gero! Haragia eta zezina goizez, arratsaldez eta gauez! Eta oloa! Hartaz geroztik, sekula ez dut berriro dastatu ez oloa ez gosarian jan ohi diren ahi horietako bat ere.

Ustekabean jaiki eta dozena bat urrats urrundu zen arrezifearen kolorazio bikaina begiratu gabe ikusteko, emozioari aldi berean eutsiz. Gero bere eserlekura itzuli zen planta bikain, seguru, lirain horretaz, bularra tente, bere buru noblea agerian —arraza arrotzekin nahastuta ere, hawaii-ar emakumeak inoiz galtzen ez duena—. Bella Castner, berriz, oso “haole” zen, larru-azal zuri eta finekoa izanik. Eta, hala ere, aurreratu ahala, haren buruaren irudia, haren begi zabal eta gaztainakaren soa (bekainetako arku dotoreen azpian erdi irekita), hirurogeita zortzi urteren buruan hainbeste musuren eztitasuna artean ere abesten zuten aho txikiaren inguruko zimur arinak... horrek guztiorrek Hawaii zaharreko buruzagi baten irudi bizia bilakatzen zuen, haren zainetatik zehar leher egiten zuen irudia, haietatik zerion odol haole-a gaindituz. Haren ahizpa Martha baino altuagoa zen, eta ahal bada, baita handitsuagoa ere.

—Gure etxera heltzen ziren bisitariak esku-zabaltasun eskasaz hartzeagatik ospetsuak ginen, badakizu —jarraitu zuen Bella-k erdi barrez—. Nahala-tik hurrengo aterperaino, edozein norabide hartuta milia asko egin behar ziren. Batzuetan, ne-

katuriko edota ekaitzak harrapaturiko bidaiariak gaua gurean igarotzen zuten. Eta zuk badakizu zeinen eskuzabalak ziren, eta dira, lur honetako arrantxoak. Nola egiten zuten barre auzoko guztiek gutaz! “Utz bakean, guri zer axola?”, esaten zidan George-k. “Horiek gaur eta orain bizi dira. Hogei urte barru, gure txanda izango da, Bella. Dauden tokian jarraituko dute eta gure eskuetatik etorriko dira jatera. Jaten emango diegu, zer janik izango ez dutelako. Baita ondo eman ere, Bella, aberatsak izango garelako, hain aberatsak ezen zein punturaino esateaz ere beldur naizen. Baina dakidana dakit eta zuk nigan uste ona izan behar duzu”.

Eta zuzen zegoen. Hogei urteren buruan, George hori ikusteko bizi izan ez bazen ere, mila dolarreko hileko errenta nuen. Jainkoarren! Gaur egun, zenbaterainokoa den jakin ere ez dakit. Baina, garai hartan, nik hemeretzi urte baino ez nituen eta esaten nion George-ri: “Orain, bizi gaitezen orain! Hogei urte barru, baliteke hilda egotea. Erratza berria nahi dut. Eta bigarren mailako kafe bat dago, guk hartzen dugun zaborrak baino bi penike gehiago besterik balio ez duena. Arrautzak olio zergatik ez frijitu, orain? Behintzat, zamau berria izan nahi nuke.” Gure etxeko oihalak ikusi izan bazenu! Gurean gaua pasatzen zutenak izara haien artean oheratzeak lotsa ematen zidan (Jainkoak ongi badaki ere, gurean aterpetzera oso jende gutxi ausartzen zela).

“Har itzazu gauzak patxadaz, Bella — erantzuten zidan berak—. Gutxi barru, urte batzuen barru, gaur gure mahaian eseri eta gure izaren artean lo egin eta gutaz gaizki esaka aritzen direnak, gure etxean egoteaz harro agertuko dira... artean bizirik geratuko direnak, noski. Gogoan dut iaz Steven nola hil zen, bizitza eroso eta xahugarria izan eta gero. Denen laguna zen, bere buruarena izan ezik. Kohala-ko auzokoek lurperatu behar izan zuten, zorrak besterik utzi ez zuelako. Eta begira besteek ere nola jarraitzen duten bide beretik. Zure anaia Al-ek, esaterako. Bizi den bezala, bost urtez ere ez da bizi izango, eta zure osaba-izeben bihotza apurtzen ari da. Eta begira Lilolilo printzeari. Berrogeita hamar “canaca-z” osaturiko eskoltarekin pasatzen ikusten dut, denak gizon indartsuak eta ahoberoak; hobe lanean hasi eta euren etorkizunaz begiratuko balute, zeren printzea ez baita sekula uharteetan erreinatzerira iritsiko. Hawaii-ko erregea izateko ez da bizi izango.”

George-k arrazoi zuen. Al hil egin zen. Eta baita Lilolilo printzea ere. Gauza batean baino ez zen oker ibili. Bera, edaten ez zuena, erretzen ez zuena, besarkada batean bere gorputz-atalen indarra sekula xahutu ez zuena, bere ezpainak nire ezpainen gainean jartzeko ohiturazko musu bat segundu bat ozta-ozta erabili ez zuena; bera, oilarrak jo aurretik beti ere jaikitzen zena eta kerosenoaren hamarrena ez gastatzeagatik lotara joaten zena; bera, heriotzari buruz inoiz pentsatu ez zuena, Al eta Lilolilo printzea baino lehen hil zen.

“Har itzazu gauzak patxadaz, Bella —esan ohi zidan Robert osabak—. George Castner-rek etorkizun bikaina du aurretik. Zuretzat senar ona aukeratu dut. Nozitzen dituzuen eskasiak Agindutako Lurraldera gidatzen duen bideak propio dituenak baino ez dira. Beti ez dute hawaii-arrek Hawaii-n aginduko. Aberastasunak esku artetik eskapatzen zaizkien bezala, halaxe eskapatuko zaie hatz artetik boterea. Boterea eta lurra lotuta doaz, Bella. Aldaketak eta iraultzak izango dira, inork ez daki zenbat eta zer motatakoak, baina azkenik gizon zuria lurraz jabetu eta agindu egingo du. Eta egun horretan, Hawaii-ko andre nagusia zeu izango zara, uhartea gobernaturako duen gizona George Castner izango dena bezain ziur. Idatzita dago. “Haole-ak” bera baino ahulagoa den arraza bati aurka egiten diorean, hala gertatzen da beti. Nik, zure osaba Robert, erdi hawaii-ar eta erdi “haole” izanik, ondotxo dakit zertan ari naizen. Har itzazu gauzak patxadaz, Bella, har itzazu gauzak patxadaz.”

“Nire Bella maitea”, esan ohi zidan bere aldetik osaba John-ek, bihotz-bihotzez maite ninduenak. Berak, Jainkoari eskerrak, sekula ez zidan aholkatu gauzak patxadaz hartzea. Berak ulertzen zuen. Oso gizon jakintsua zen. Gizon maitakor, bihozbera zen, eta beraz, Robert eta George Castner baino jakintsuagoa, izpirituaren ordezkaria nahiago baitzuten, txanponak zenbatzen baitzituzten lagunaren bihotzak egiten zituen taupak zenbatu ordez, kopuruak gogoratzen baitzituzten besarka-

dak, begiradak, laztanak eta maitasun-hitzak gogoratu beharrean. “Nire Bella maitea”, esaten zidan John-ek. Berak ulertzen zuen. Zuk badakizu Naomi printzesaren maitalea izan zela. Benetako amorantea. Behin bakarrik maitemindu zen. Naomi hil zenean, gizon xelebrea zela esan zuten. Eta egia da. Behin bakarrik eta betiko maite duten horietariko zen. Gogoan dut Kilohana-ko etxean tabua zen gela hura, haren heriotzaren ondoren soilik barrutik ikusi genuena eta printzesaren omenez altxatako santutegia izatea suertatu zena. “Nire Bella maitea”. Inoiz ez zidan gehiagorik esan, baina berak ulertzen zuela jakiteko nahikoa izan zen.

Nik garai hartan hemeretzi urte nituen; eta nire odolaren hiru laurdenak zurien odolarena izan arren, eguzkipean berotutako hawaii-ar petoa nintzen. Nik ezer gutxi nekien munduaz, izan ez bazen Kilohana-n pasatako haurtzaro zoriontsua, “Royar Chief Scholl”ean irakatsi zidatena, Nahalako nire senar grisa bere sermoi grisekin, haren zorrotasuna eta aurrezteko zaletasuna, eta nire bi osaba horiek, biak seme-alaba gabeak, batak etorkizun urrunari buruz zituen ikuspenekin eta bestea bere bihotz apurtuarekin, sekulako ameslaria eta hildako printzesa batez maiteminduta.

Irudika al dezakezu etxe gris hura? Nik, oparotasuna, gozamenak, Kilohana-ko amaigabeko alaitasun irribarretsua, Parker-ren etxekoa “Mana” zaharrean, Puuwaawaa-koa... besterik ezagutu

arren. Zuk gogoratuko duzu. Handitasun feudalean bizi gineneko garai hura. Sinetsi nahi al duzu, sinetsi al dezakezu, Martha, Nahala-n neukan josteko makina misiolariiek ekarritako lehen traste haietari-ko bat zela, gurpila eskuaz biratuz ibilarazi behar zen tramankulu zentzugabe eta txiki-txiki bat?

Ezkondu ginenean, Robert-ek eta John-ek bost mila dolar bana eman zizkioten George-ri; hark, berriz, inori ez esateko eskatu zien. Guk laurok baino ez genekien. Eta nik nire “holokulu” merkeak tresna zentzugabe hartaz josten nituen bitartean, hark diru horrekin ez dakit zenbat lursail eskuratu zituen Nahala-ko goi-zelaietan, piskanaka-piskanaka, erosketa bakoitza negoziatzen pagotx-aren bat lortu arte, txirotasunaren irudi bizia zen begitarte harekin.

Baina, merezi izan al zuen? Ni gose nintzen. Behin bederen beso artean grinaz estutu izan banindu. Behin bederen eskaini izan balizkit bost minutu, lanari edota ugazabei eskaintzen zien fidel-tasunari lapurtuak. Batzuetan garrasi egingo nukeen; edo betiko kaiku oloa aurpegira jaurkiko niokeen; edo josteko makina lurrera bota eta gainean “hula” dantzatuko nukeen, erreakzionaraz zezan, haserre oihu egin zezan, gizakiek bezala joka zezan, anker, gizon batek bezala eta ez erdi jainko izoztu eta gris batek bezala.

Begitarte tragikoa Bella-ren aurpegitik desagertu zen; bat-batean, ordea, oroitzapen alaiak eragiten diguten barre zabalez eman zion barreari.

—Hark aldarte horretan ikusten ninduenean, serio-serio begiratzeko zidan, pultsua hartzen zidan, mingaina arakatzeko zidan, oliokada errizino ederra ematen zidan benaz, eta benazkotasun berberaz, sukaldeko burdinazko zirrindolaz aurretik berotutako izara epelen artera goiz bidaltzen ninduen, lotara, biharamonean askoz hobeto egongo nintzela ziurtatuz. Goiz, zioen berak! Aparteko salbuespen gisa, bederatzietan puntu-puntu oheratzea besterik onartzen ez bazuen ere! Orokorrean, zortzietan lotaratu ohi ginen. Horri esker, kerosenoa aurrezten genuen. Nahala-n ez genituen sekula afaltzeko hiru plater izan. Gogoan al duzu Kilohana-ko mahaia afalorduan biltzen ginenean? George-k eta biok afari arina baino ez genuen egiten. Gero, lanpararen ondoan esertzen zen, mahaitik hurbil, eta ordubete igarotzen zuen uzten zizkioten aldizkari zaharrak irakurtzen; bien bitartean, ni, parean eserita, haren galtzerdiak eta barruko arropak adabatzen aritzen nintzen, merkatuko arroparik merkeena, baldarrena. Eta bera ohera joaten zenean, ni ere ohera joaten nintzen. Bakar batentzat kerosenoa gastatzea beneratuko zarrastelkeria zen. Eta beti oheratzen zen betiko errituala eginez: lehenik, erlojuari giltza ematen zion; segituan, eguneko tenperaturak idatziz jartzen zituen bere agendan; gero, zapatak modu berean erazten zituen beti, eskubiko oina lehen, ezkerrekoa gero; eta azkenik, zapatak bata bestearen ondoan

jartzen zituen, ohearen oinean, okupatzen zuen ohe aldean beti.

Inoiz ezagutu dudan gizonik garbiena zen. Barruko arropaz egunero aldatzen zen. Nik arropa ikuzten nuen. Garbia zen gehiegikeriaraino. Egunean bi aldiz kentzen zuen bizarra; eta gorputza garbitzeko, edozein “canaca”k baino ur gehiago erabiltzen zuen. Eta bi “haole-en” lana egiten zuen. Eta Nahala-ko uretan etorkizuna ikusten jakin zuen.

—Aberatsa egin zintuen, baina ez zintuen zoriontsua egin —ohartarazi zion Martha-k.

Bella-k hasperen egin zuen eta buruaz baietz erantzun zion.

—Eta, azken batean, zer da aberatsa izatea, Martha? Nire Pierce-Arrow berria nirekin batera heldu da baporez. Hirugarrena da azken bi urteotan. Baina, zer dira munduko Pierce-Arrow guztiak eta munduko sos guztiak lana, sufrimenduak eta poztasunak erdibanatzeko aukera ematen dizun maitale baten aldean? Zer dira gizonarekin, senarrarekin eta maitalearekin alderatuta?

Haren ahotsa poliki-poliki itzali zen eta bi ahizpek kai isilaren erdian eserita iraun zuten; bien bitartean, makila eskuan ta ehun urteko bizialdiaren pisupean makur eta oker zebilela, atso batek zelaia zeharkatu zuen haiek zeuden tokirantz. Begiak behatxuloak bilakatuak zituen, mangostarenak bezain

zoliak baina. Etorri berriaren oin ondora heldu zenean, lurrera jaurki zen erabat kikilduta, haren hortzik gabeko ahotik hawaiiar erarik garbienaz salmodia nahaspilatsua sortzen zela, Bella eta honen arbasoak mintzagai zituena, garaiz kanpoko ongi etorria emateaz batera, Kaliforniara bidez itsas zabalean zehar egindako bidaiatik itzuli izana ospatzeko. Eta bere melopeia luzea abesten zuen bitartean, atsoak xirmendu-antzeko hatzekin Bellaren zangoak —zetazko galtzerdiez jantzita, orkatilatik eta zangosagarretik belaunera eta izterrera— laztantzen zituen.

Bi ahizpen begiak bustidura argitsu batez lausoturik zeudela, laztanak eta salmodia —oraingoan, Martha-ren omenez— errepikatu ziren; halaber, bi emakumeek euren hizkuntza zaharrez antzina-antzinako galderak zuzendu zizkieten haren osasunaz, adinaz eta herenilobez Kilohana-ko egoitza handian txikitan hainbat laztan egin zizkien emakume zaharrari —belaunaldi luzeetan zehar, horren arbasoek bi ahizpen arbasoak laztandu zituzten bezala—. Ohizko bisitaldi laburra amaiturik, Martha zutik jarri eta atsoari etxeraino lagundu zion; gero, haren eskuan txanpon batzuk jarri eta Japoniako neskame harroei agindu zien bertoko emakume zaharrari hainbat opari egiteko: “poi-a” (ostargi-belarraren erroez egindako nahastura), “iamaka” (hau da, arrain gordina, birrindutako “kukui” intxaurrekin), eta “limu-a” (itsasoko alga liserigarriak, zaporetsuak eta samurrak, hortzik gabeko ahoentzat oso egokiak). Horiek lotura feudal zaha-

rrak ziren, jopuak nagusiarekiko darakutsan fidelta-suna eta hark jopuekiko darakutsan erantzukizuna, eta Martha-k, Ingalaterra Berritik zetorkion odola-gatik hiru laurdenetan “haole-a” bazen ere, ia-ia desagertuta zeuden antzinako tradizioak gogoan izateari eta errespetatzeari dagokienez, hawaiiar peto-pettoa izaten jarraitzen zuen.

Martha-k “hau” zuhaitzaren aldera belardia zeharkatzen zuen bitartean, Bella-ren begiek emakume haren jatortasun hunkigarria eta haren adolarena miretsi zuten, besarkatu eta maitatu baitzuten. Martha haren ahizpa baino piska bat baxuagoa zen, baina piska bat bakarrik, eta gorpuzkeraz ez zen hain handientsua; hala ere, neurri eder eta harmoniatsuak zituen —urteen poderioz, hondatuta baino, leunduta—; eta Polinesiako buruzagi gisa zegokion eitea berezkoa eta loriotsua zela iragar zitekeen soinean zeraman “holuku” zabalaren tolesduren azpitik —zeta beltzez eginda eta farfailez azpilduta eta Parisko edozein jantzi baino garestiagoa.

Eta bi ahizpek solasaldiari berriz ekiten zioten bitartean, edozein behatzailek errepara zieza-ziekeen bi perfil garbi eta zuzen haien arteko antzekotasun nabarmenari, masailalbo-hezur altuei, bekoki zabal eta garbiei, altzairu antzeko gris-koloreko ile-mataza ugariei, ezpain eztitsuko ahoei (hamarkada luzetan ongi finkatutako harrotasun zurras moldatuta), begi zabal eta gaztainakaren gainean arku bat zirriborratzen zuten eta orobat sakonak ziren bekain eder eta finei. Bi emakumeen

eskuak —denboraren eragina apenas jasan zutenak— ederrak ziren, hatz luze eta finekoak puntu biribilekin. Haurtzaroan maitasunez laztandutako eskuak ziren, hawaii-ar emakume zaharren maitasunaz eginak, une hartan etxe barruan “poi-a”, “iamaka” eta “limu-a” jaten zituenarenak bezalakoak.

—Horrela igaro nuen urte bat —jarraitu zuen Bella-k—, eta, ba al dakizu gauza bat?, gauzak oneratzen hasi ziren. George ni erakartzen hasi zen. Emakumeok honelakoak gara, edo behintzat ni honelakoa naiz. George zintzoa baitzen. Zuzena zen. Birtute puritanorik baloratuenak zituen. Hasi zen ni erakartzen, gustatzen. Ia ausartuko nintzateke, esatera, bera maitatzen ere hasi nintzela. Eta osaba John-ek zaldi hura utzi izan ez balit, badakit nire gizona zinez maitatuko nukeela eta harekin zoriontsu bizi izango nintzatekeela, modu lasai eta patxadatsuan, noski.

Badakit gizonei buruz besterik ezagutzen ez nuela, ezer berezirik ez, ezer hoberik ez. Eguna joan-eguna etorri, afaldu eta oheratu arteko tarte labur haietan irakurtzen aritzen zen bitartean, mahai gainetik atseginez begiratzen niola aitortu behar dizut. Ilunabarrean etxera hurbiltzen zenean, haren zaldiaren apoak itxaroten eta noiz entzungo zain egoten hasi nintzen, arrantxoan zehar denbora luzez zamalkatu ostean. Eta zuzentzen zizkidan hitz polit bakanak biziki maite nituen. Bai, Martha, ondo egiten nituen eta hark onesten zituen gauzengatik

egiten zizkidan laudorio zuzen eta zehatzen aurrean, lotsaz gorritzen hasi nintzen.

George-k Honolulu-rako bapote hura hartu izan ez balu, bizitza osoa elkarrekin igarotzeaz zoriotsua izango nintzatekeen harekin. Negozio-bidaia izan zen. Alde batetik, bi aste edo gehiago kanpoan igaro behar zituen, Glen-darren kontuez (arrantxo-kontuez batez ere) arduratzeko; eta beste alde batetik, bere negozioaz arduratu behar zuen, Nahala-ko goietan lursail gehiago erosteaz alegia. Lur asko erosi zituen, basatienak, malkartsuenak, ura izan ezik beste ezer ez zuten lurrak. Bost edo hamar zentabo ordaindu zituen akre bakoitzeko, iturriak eta guzti erosi zituelarik. Lekuz aldatzeak on egingo zidala esan zidan. Nik Honolulu-ra lagundu nahi nion, baina, aurrezteagatik, Kilohana-ra joan behar nuela erabaki zuen. Etxekoen egoitzan ostatu hartzea dohainik aterako zitzaion; eta gainera, etxean bakarrik geratu izan banintz, jango nituzkeen jaki mixerableak ere aurreztuko zituen — horrek Nahala-n lur gehiago erostea esan nahi zuen—. Eta Kilohana-n osaba John-ek zaldi hura utzi zidan.

Etxekoekin berriz ere pasatako lehendabiziko egun haiek izugarri atseginak izan ziren. Hasieran, kosta egiten zitzaidan munduan halako opor-tasuna egon zitekeenik sinistea. Sukalde hartan hainbeste janari xahutzeaz harriturik nengoen. Nire senarrak hain ongi hezi ninduen, ezen, begirada non jarri zarrastelkeriak hor ikusi. Morroiak euren

etxeetan, morroien senide zaharrak eta haien esku zeuden guztiak, George eta biok baino askozaz hobeto elikatzen ziren. Kilohana-ko oparotasunaz oroituko zara, Parker Arrantxokoa bezalakoa baitzen. Bazkari bakoitzean idi bat hiltzen zuten; Wai-pio-tik eta Kiholo-tik arrain freskoa ekartzeko agintzen zuten; eta urtaro bakoitzean, jakirik onenak eta bitxienak zerbitzatzen ziren.

Horrez gain, maitasuna. Gure familiaren maitatzeko era. Badakizu John osaba nolakoa zen. Eta hantxe ere bazeuden gure anaiak Walcot eta Edward eta gure ahizpa txiki guztiak, Sally eta zu izan ezik, ikastetxean baitzeundeten. Eta izaba Elizabeth eta izeba Janet, seme-alabekin boladatxo bat bertan igarotzen ari baitziren. Amaigabeko besarkadak, maitasun-hitz etengabeak... hamabi hilabete nekoso haietan faltan izan nuen guztia. Maitasun-egarri nintzen. Palmondoen erroen artetik burbuilaka jariotzen diren ur freskoak edateko, harearen aurka oldartzen den naufragoaren parekoa sentitzen nintzen.

Eta orduan, hain zuzen, iritsi egin ziren. Kawaihae-tik zetozen; bidaia ofiziala zen. Errege-yatetik lehorreratu berriak ziren, hogeita hamar guztira, binaka, ezin ahaztuko desfile batean, lepoak lore-koroaz apaindurik, gazteak, zoriontsuak, alaiak, Parker Arrantxoko zaldien gainean, ehun unai eta beste horrenbeste jopuk lagunduta. Lihue printzesaren segizioa zen; denok genekenez, tuberkulosi izugarria zela-eta, printzesa zimelduta eta

ahituta zegoen. Haren ilobak ere hantxe ziren, Lilo-lilo printzea (leku guztietan txalotua, legezko oinordekoa izanik), eta honen bi anaiak, Kahekili printzea eta Kamalau printzea. Eta printzesarekin, berriz, ondokoak zihoazen: Ella Higginsworth (eskubide osoz aldarrikatzen zuenez, haren zainetatik buruzagi boteretsuagoen odola zerion, “Kauai” errege-familiatik zetorrelako), Dora Niles, Emily Lowcroft... Zertarako jarraitu zerrendarekin! Ella Higginsworth-ek eta biok gela bera erdibanatu genuen “Royal Chief School-ean”. Eta ordu bateko otamena eskaini zitzaion, “lau-a” ez, “lau-a” Parker-ren arrantxoan zain zeukatelako, baina bai garagardoa eta edari gogorragoak gizonentzat, eta limoi-edaria, eta laranjak eta angurri freskagarria emakumeentzat.

Ella Higginsworth-ek besarkatu egin ninduen, eta printzesak ere gauza bera egin zuen (nitaz gogoratzen baitzen), eta baita gainerako emakume gazte eta helduek ere, eta Ella-k Lihue-ri hitz egin zion, eta bi egun barru Mana-n segizioarekin bat egitera gonbitatu ninduen. Pentsa, Nahala-ko kartzela grisean hamar hilabetez preso egon eta gero, pozez txoraturik nengoen. Hemeretzi urte nituen eta astea bukatu baino lehen hogeiak betetzera nindoan.

Sumatu ere ez nuen egiten gertatzera zihoa-na. Hain lanpeturik nenbilen emakumeekin, ezen, Lilolilo urrunean baizik ez nuen ikusi, gainontzeko gizonen artetik nabarmentzen baitzen bai bere inda-

rragatik bai bere altueragatik. Ni sekula ez nintzen errege-segizio baten partaide izan. Kilohana-n eta Mana-n jai handiak egiten zizkiotela ikusita neukan, baina garai hartan gazteegia nintzen horrelakoetara gonbidatua izateko; gero, ikastetxera joan behar izan nuen eta azkenik ezkondu egin nintzen. Baina benekien zer esan nahi zuen: bi aste bete paradisuari, Nahala-n beste hamabi hilabete jasateko nahikoa.

John osabari zaldi bat uzteko eskatu nion; horrek, hiru zela eskatzen zituen: bata niretzat, beste bat nirekin etorriko zen unaiarentzat eta hirugarrena ordezkotzat zaldiarentzat. Orduko hartan, ez errepiderik ez kotxerik ez zegoen. Eta nolako zaldia eman zidan! Hilo izan zen. Ez dut uste hartaz gogoratuko zarenik. Garai hartan zu ikastetxean zeunden; eta hurrengo urtean, zu itzuli baino lehen, Mauna Kea inguruetan ganadu basatia lazoz ehizatzen ari zirela, Hilo-ri bizkarra hautsi zitzaion eta bere zaldizkoari lepoa hautsi zitzaion. Agian, gertaeraren berri jakin zenuen, Itsas Armada amerikarraren ofizial hura...

—Bowsfield tenientea —baietsi zuen Martha-k.

—Hilo. Ni nintzen zaldi gainean zihoan emakumea. Hiru urte izango zituen, ia-ia lau, eta hezi berria zen. Hain beltza zen eta hain ilaje distiratsua zuen, ezen, ba baitzirudien eguzkiak zilar dirdaitsuzko geruza batez estaltzen zuela. Zaldiz

ibiltzeko alerik handiena zen arrantxo osoan. Erregearen ikuilukoa zen (“Sparklindew” hazitarako zaldiarengandik eta zelaietako behor batengandik zetorren) eta zuela aste gutxitik hezita zegoen. Ibiltzeko zaldi ederragorik ez neukan nik sekula ikusita lehenago. Mendiko zaldirik onena zen, gorpuzkera betekoa, bular indartsukoa, gorputz harmoniatsukoa eta bihotz handikoa. Burua eta gorputza arrazakoak zituen, lirainak baina boteretsuak; belarriak ezin politagoak, erne beti, ez txikiak (zaldi makurrarenak bezalakoak) ez handiak (mandoa bezain burugogorra den zamariarenak bezalakoak); hankak ere perfektuak zituen, akatsgabeak, seguruak eta sendoak, eta lahuazkatzeko urrats luze eta malgua zerabilen (zela azpian bera sentitzea plazerri bilakatzen zelarik).

—Behin, gogoratzen dut, Lilolilo printzeak osaba John-i esan zion Hawaii osoko amazonarik onena zinela —eten egin zion Martha-k—. Baina hori handik bi urtera izan zen, ikastetxetik itzuli nintzenean eta zu Nahala-n bizi zinenean.

—Hori esan al zuen Lilolilo-k? —hots egin zuen Bella-k. Ia-ia aztoraturik, begi gaztainakara handiak argitu zitzaizkion, haren oroimena maitale harengana itzultzen zen artean, mende erdia hilda baitzeraman, hauts bihurtuta. Hawaii-ko emakumei berez darien apaltasunaz, ustekabeen agerian utzitako sentimenduak ezkutatzeko, Hilo-ri buruzko panegirikoa egin zuen.

—Harekin zelaietan zehar lahuazkatzen nintzenean, ametsetan zamalkatzea bezalakoa zen. Jauzi bakoitzean belarretik gora agertzen zen oreina, untxia, fosterrier-ra bailitzan jauzi eginez... zuk badakizu nola. Eta zer-nolako arrandiak, zer-nolako itzulipurdiak, zer-nolako sataia harenak! Jeneral baten, Napoleon-en, Kitchner-en duinekoa izan zitekeen. Haren begirada ez zen gaiztoa, maltzurra eta adimentsua baizik, begi atzean beti txantxaren bat ezkutatuko balu bezala eta hartaz barre egin edo hura betikotu nahi izango balu bezala. Osaba John-i Hilo niri uzteko eskatu nion eta osaba John-ek begiratu zidan eta nik begiratu nion, eta hitzik esan ez bazuen ere, nik banekien barrutik zera esan nahi zidala: “Bella maitea”, eta begiratu zidan moduagatik berehala ohartu nintzen haren begietan Naomi printzesaren irudiak bere hartan jarraitzen zuela. Osaba John-ek amore eman zuen. Eta gauzak hala gertatu ziren.

Hilo neuk bakarrik probatu behar nuela esan zuen behin eta berriz, saio pribatu batean. Hura kemena, hura kemen loriotsua! Maltzurkeriarik, aiherrik gabeko kemena zen ordea. Behin eta berriz ozartzen zen, nik horretaz ohartzeko denborarik ematen ez banion ere. Ez nintzen haren beldur; eta horri esker, hartaz jabetu ahal izan nintzen, hau da, abantailarik txikiena hartzen ez zidala sinetsarazi nion.

Askotan galde egin izan diot nire buruari osaba John-ek noizbait susmatu ote zuen zer gerta

zitekeen. Ziurtasun osoz dakit, ordea, ezen, Mana-n errege-segizioarekin elkartzeko abiatu nintzen egunean, burutik pasa ere ez zitzaidala egin. Ordura arte sekula ez neuzkan haiek bezalako ospakizunak ikusita. Badakizu Parker-ren eskuzabaltasuna norainokoa zen. Basurde-ehizak azkonez, ehiza larririk, zaldi-hezierak eta abere-markak antolatu zituzten. Zerbitzuko gela guztiak gainezka zeuden. Unaiak arrantxo osoko leku guztietatik zetozen eta neska gazteak Waimea-tik eta urrunagotik ere heltzen ziren: Waipio-tik, Honokaa-tik, Paaulio-tik... Oraindik ere ikus ditzakete harresietan ilaran eserita, euren maiteminduentzat “leis-ak” egiten. Eta gauean, gau lurrindu haietan, “mele-ak” eta “hulak” dantzatzen ziren, eta Mana-ko belardietan zehar maitaleak paseatzen ziren, binaka, zuhaitzen azpitik... Eta printzea...

Bella-k isilune bat egin eta amaigabeko minutu batez goiko hortzak beheko ezpainan sartu zituen, bere burua kontrolpean izaten saiatzen zen bitartean; azkenik, lortu eta so distraitu bat jaurki zuen zeruertze urdinaren alderantz. Lasaturik, begiak ahizparengana itzuli zituen.

—Benetako printzea zen, Martha. Ikastetxetik etxera itzuli zinenean, Kilohana-n ikusi zenuen. Emakume guztien begiradak erakartzen zituen, eta, bai, baita gizonenak ere. Hogeita bost urte zituen eta pertsona helduaren gizontasun osoa. Gorputzez zein izpirituz handia eta aparta zen. Dibertsioa zentzurik gabea eta kirola edozeinen indarrak ahit-

zeko modukoak izan arren, berak beti gogoan zuen errege-familiakoa zela eta belaunaldiz belaunaldi haren arbasoek gobernatu zutela, genealogiek kantatzen zuten errege haren denboretara (kanoaz Tahiti eta Raiatea-raino eta berriz ere Hawaii-raino nabigatu zuen haren denboretara) atzera egin arte. Plantaz liraina zen, eztitsua, atsegina, lagun eta adiskide ona, eta era berean, serioa, zorrotza eta benetan haserraturuz gero, baita gogorra ere. Ez zait erraza egiten azaltzea zer esan nahi dudan. Gizona zen, gizon-gizona, burutik oinetara, eta aldi berean, goitik behera printzea zen; noizbat errege izatera heldu izan balitz, errege zintzo eta zuzena izango zatekeen, humoretsua eta kementsua zelarik.

Hartaz oroitzen naiz lehendabiziko egun hartan ikusi nuen bezala, eskua ukitu eta hitz egin nion egun hartan... hitz gutxi batzuk soilik, beldurrez, “haole” gris batekin ezkontuta eta Nahala grisean bizitzen urtebete zeraman emakumeari zegoen bezala. Mende erdia igaro da elkartze hartatik. Gogoratuko duzunez, orduko gazteek zapata eta fraka zuriak, kolore bereko zetazko alkandorak, eta hain alaiak diren banda espainiar horiek janzten zituzten. Azken mende honen erdian irudi hori ez da nire bihotzetik ezabatu. Printzea talde baten erdian zegoen, lorategian, eta ni harengana nindoan Ella Higginsworth-ek lagunduta, aurkezpenak egin behar zituen-eta. Lihue printzesak txantxaren bat egin zion; eta hari erantzuteko, Ella une batez gelditu egin zen. Hori dela eta, nik neuk ere gelditu behar izan nuen, urrats batera edo.

Han, kasualitatez, printzearen begiekin topo egin nuen, bakarrik, aztoraturik, herabe. Badirudi oraindik ere bera ikusten dudala, burua atzera jarrita, hain berezkoa zuen begitarte harro, adimentsu, agintezale eta natural (eta azalduzin) harekin. Gure begiradek bat egin zuten. Haren burua aurretantz makurtu edo niganantz tentetu zen. Ez dakit zer gertatu zen. Zerbait agindu al zidan? Men egin al nion? Ez dakit. Bakarrik dakit egun hartan oso itxura atsegina eskaintzen nuela, “maile” lurrintsuz koroatuta eta Naomi Printzesaren “holoku” eder batez (osaba John-ek gela tabutik atera eta utzi zidan batez) jantzita. Badakit harengana bakarrik aurrera egin nuela Mana-ko lorategiko soropila zeharkatuz; eta nire bila etortzeko, inguratzen zitzaion taldetik urrats batzuk aldendu zela. Belardiarren erdian elkartu ginen, bakarrik, gure bizitzak elkarrekin gurutzatu izan balira bezala.

—Gaztetan ni oso ederra al nintzen, Martha? Ez dakit. Benetan, ez dakit. Baina benetan diotsut, une hartan, haren maiestate osoa nitaz jabe egin eta nire bihotzeraino sartu zela, eta bat-batean edertasuna sentitu nuen, nola esango nizuke?, harengan sortua bailitzan eta haren begiradaz besterik gabe nire barruan konjuratuko balu bezala.

Hitzik ez genion elkarri esan; baina mezu isilak bidalitako trumoiari eta tronpetei emandako zinezko erantzun gisa, aurpegia goratu zuen; eta badakit, ezen, une hartan bizia kendu izan balidate

ere, zuzendu nion begiradari eutsi ezin izango nio-keela. Begirada hura amore ematea zen (nire begietan, nire aurpegian eta antsikabe arnasartzen zuen nire gorputzean irakurri-beharreko amore ematea). Ederra al nintzen, oso ederra al nintzen, Martha, hemeretzi urterekin, ia-ia hogeitau urte nituenean?

Eta Marthak, zituen hirurogeita lau urterekin, hirurogeita zortzi urte zituen Bella-ri begiratu eta zinez baietz erantzun zion. Eta bere artean, baieztapen haren barruan, une hartan ikusten zuena sartu zuen: Bella-ren lepoa (betea eta ongi egina, ohiz baino luzeagoa Hawaii-ko emakumeen artean, haren buruari eusten zion zutabe handitsua), haren masailalbo-hezur altuko aurpegia eta bekain altuak, eta haren buruzagi-itxura. Haren ile-adatsak (goian bilduta, ukitugabeak, urteen zilarraz distiratsuak, oraindik ere kizkurtuta) eta haren bekain garbi, fin, beltzek eta haren begi gaztainakara sakonek bestelako kolorea zuten. Eta Martha-ren begirada — zekusanagatik apaltasunez beteta— ahizparen bular alderantz lerratu zen, eta gorputzeko lerro eskuza-baletan zehar jarraitu zuen, oinetara heldu arte (oin txiki eta beteak, zetazko galtzerdietan jantzita eta takoi altuko zapatetan sartuta, arkuiz ia-ia espainiarren bezalakoak eta oinbular bikainekoak).

—A, nolakoa den gaztaroa! —barre egin zuen Bella-k—. Lilolilo benetako printzea zen. Beranduago, zituen ezaugarri eta gogo-aldarte gutti-guztiak ezagutzera heldu nintzen (ur kantarien ondoan, barealdian lotan geratutako urautsien on-

doan eta mendiko bide-zidorretan pasatako egun eta gau magiko haietan). Haren begi eder eta ausartak, haren bekain beltz eta zuzenak, haren sudurra (Kamehameha-ren sudur berbera, zalantzarik gabe) ezagutu egin nituen, eta haren ahotsaren okergunerik nimiñoena, politena, azken-azkena ezagutzera ere iritsi nintzen. Eta aho ederragorik ez dago, Martha, hawaii-arrena baino.

Eta haren gorputza... Atleten erregea zen, ile bihurri eta hezikaitzetatik hasi eta brontzezko eta altzairuzko orkatiletan amaitu. Orain dela egun gutxi, Wilder-ren ilobeetariko bati “Harvard-eko printzea” deitzen ziotela entzun nuen. Jainkoarren! Zer esan ez ote zuten nire Lilolilo-ri buruz Wilder-ren ilobarekin eta bere talde unibertsitario osoarekin alderatu izan balute?

Bella isildu eta arnasa sakona hartu zuen, zetazko magal zabalaren gainean esku fin eta txikiak bihurritzen zituen bitartean. Aurpegiko azala arinki gorritu zitzaion, ordea; eta printzearekin pasatako egunak oroitzean, begiak epeldu zitzaizkion.

—Beno, ziurraski honez gero badakizu zer gertatu zen —esan zuen soinak goratuz, erronkari, eta begirada bere ahizparen begietan zuzenean murgilduz—. Mana atzean utzi genuen eta, segizio alai lagun genuela, labazko bide-zidorretan zehar jaitsi ginen Kiolo-raino eta hondartzetaraino; hango hareatza beroetan, palmondoen azpian, igerian, arrantzan, jaitan eta lo egiten aritu ginen. Eta gero,

Puuwaawaa-ra igo ginen eta basurdeak jazarri genituen, eta goiko zelaietan ahari basatiak lakioz ehitatu genituen, eta Mauka-ra heltzeko Kona zeharkatu behar izan genuen, eta Kailua-ko erregearen jauregiraino eta Keauhou-ko hondartzetaraino jaitsi ginen, non bainu hartu baikenuen, eta handik Kealakekua-ko badiara joan ginen, Napoopoo-ra eta Honaunau-ra heldu ginen arte. Eta pasatzen ginen tokian jendea hurbildu eta euren eskuekin loreak, frutak, arrainak eta zerriak eskaintzen zizkiguten, bihotzak maitasunez eta abestiz beterik zituztela, buruak makur errege-erreginen familiakoeh ohorez, haien ezpainetatik kanta harrigarriak zerizkiela, joandako eta ahaztutako egunen omenez.

Zer egingo zenukeen zuk nire kasuan, ahizpatxo? Zuk badakizu nolakoak garen emakume hawaii-arrok. Zuk badakizu nolakoak ginen orain dela mende erdi bat. Lilolilo oso gizon ederra zen. Ni kaskarin samarra. Eta honelakoa izan ez banintz ere, printzeak emakumerik zuhurrena txoriburu bihurtzen zuen. Eta ni neskarik txoriburuena nintzen, Nahalak (Nahala hotz eta grisak) zirikatzen ninduelako. Ez nuen inoiz zalantzarik txikiena izan. Ez nuen inoiz itxaropenik txikiena izan. Egun haietan, amestu ere ez zen egiten dibortzioaz. George Castner-ren emaztea ezin zitekeen inoiz Hawaii-ko erregina izan, Robert osabak profetizatzen zuen iraultza berandutuko balitz ere, Lilolilok benetan erregea izatera lortuko balu ere. Ez nuen inoiz tronuan pentsatu. Lilolilo-ren emaztea eta laguna izatea baino beste erreinurik ez nuen nahi. Ez nengoen

oker ordea. Ezinezkoa ezinezkoa zen eta itxaropenik ez nuen.

Maitasunaren atmosfera arnasten nuen. Eta Lilolilo maitale ezin hobea zen. Bidaltzen zizkidan mezulariek Mana-ko arrosa-lorategietatik ekartzen zituzten “leis-ez” etengabe koroatzen ninduen — lorategi horiez gogoratuko zara, ziur—. Arrosek berrogeita hamar miliako bidea egiten zuten, labazko bide-zidorretan eta belardietan zehar. Eskuetara iristen zitzaizkidan goizeko ihintzaz fresko oraindik, lurretik atera berriak bezala, bananondo-azalaz eginiko zorroetan harribitxiak bailiran. “Leis” haiek yard bateko neurria zuten eta lore-begi nimiñoak Napoliko koralezko ale kordatuak bezalakoak ziren. Eta “laus” amaigabeetan, ni Lilolilo-ren zerrian esertzen nintzen, Makaloo-koren zerrian alegia (printzeak soil-soilik erabil zezakeen hartan — haren baimena edota onespina ez izatera, gizaseme guztientzat tabua baitzen han esertzea). Eta bere “pa wai holi-an” (kaikuan) hatzak sartzen nituen, non ur epelean lurrunduriko lore-petaloek flotatzen baitzuten, eta ematen zidan trataera bereziaz besteak ohartuko al ziren beldur izan gabe, eskuan bere “pa paakai-n” murgiltzen nituen, hartzeko: gatz gorri pittin bat, “limu-a”, “kukui” intxaurrea eta piperrautsa, eta “kou-zko” zuraz eginda zegoen bere “ipu kai-n” (arrain-saltsarako platerean) jaten nuen (Kamehameha handiak plater horrexetik jan zuen antzeko bidaietan). Eta gauza bera egiten nuen Lilolilo-rentzat eta printzesarentzat bakar-bakarrik ekartzen zituzten plater bereziekin: “nelu” eta

“ake”, “palu” eta “alaala” platerekin. Eta bere “kahili-ak” nire buruaren gainetik kulunkatzen ziren, eta bere morroiak nireak ziren, eta bera ere nirea zen, eta lorez koroaturiko nire burutik nire oin zorionsuetara, maitatua sentitzen nintzen.

—Hala gertatu zen Kona-n, eta Kau-n, eta Hoopula-n eta Kapus-en, eta Honuapo-n eta Punaluu-n... Bizitza baten bizitze osoa bi aste laburretan laburbildurik. Lorea behin loratzen da eta egun haietan ni loratu nintzen. Lilolilo nire ondoan, ni nire Hilo maitearen gainean, Hawaii-ko erregina ez, baina bai printzearena eta maitasunarena. Leviatan-en bizkar beltzaren gainean kolorezko eta edertasunezko burbuila nintzela esaten zidan, laba-korrante baten gandor ketsuaren gainean ihintz-tanta hauskorra nintzela, ekaitz-hodei baten gainean lauhazkatzen zen ostadarra nintzela...

Bella-k isilune bat egin zuen.

—Esan zidanaz hitz egiten ez dut jarraituko —esan zuen benazko—. Haren hitzak maitasunaren sua eta edertasunaren mamia bera zirela jakitearekin nahikoa da, nire omenez “hula-k” asmatu zituela eta abestu egin zizkidala, guztien begien aurrean, gau bete-betean izarren azpian, besteek euren zerrietan etzanda adi-adi entzuten zituzten bitartean, eta nik Makaloa-koarena okupatzen nuen, Lilolilorena hain zuten.

Eta ametsa amaitzear zegoela, Kilauea-ra heldu ginen eta Pele-ren omenez, suaren jainkosa-
ren omenez, geure opariak jaurki genituen putzu
gartsura: “maile-ak” eta lore-girnaladak, arraina eta
“ti” hostoetan bildutako “poi” hezea. Eta Puna ze-
harkatu genuen, eta jan da abesten aritu ginen Ko-
houalea-n, eta Kamaili-n, eta Opihikao-n, eta Kala-
pana-ko aintziretako ur garden eta epeletan egin
genuen igeri. Eta azkenik, Hilo-ra heldu ginen, itsas
aldera alegia.

Hura amaiera zen. Ez genuen inoiz une har-
taz hitz egin. Ezagutzen genuen eta inoiz aipatu ez
genuen amaiera zen. Yatea zain zegoen, segizioak
egun batzuk berandu heldu zelako. Honolulu haien
zain zegoen. Albiste eta zurrumurru ugari zebilt-
zan: erregea nahiko “pupule” (zoraturik) zegoela,
misioilari katoliko eta protestanteak azpilanetan ari
zirela, Frantziarekin hainbat gatazka piztu zirela...
Bi aste lehenago Kawaihai-n lehorreratu ziren mo-
duan, halaxe ere abiatu ziren Hilo-tik, barre, lore
eta abestien artean. Abiatze alaia izan zen, barrez
eta algaraz betea; atzeneko milaka mezu, enkargu
eta txantxaz josia. Lilolilo-ren koruak untzi gainean
abesten zuen agur-kantarekin batera aingura jaso
zuten; eta bien bitartean, guk, kanoetan eta txalupe-
tan, itsas haizeak untziko belak nola puzten zituen
eta hartatik bereizten gintuen distantzia nola han-
diagotzen zihoan ikusten genuen.

Anabasaren eta iskanbilaren artean, Lilolilo-
k, azken agur-hitzak eta azken txantxak zuzendu

behar bazituen ere, karelari eutsita zabal-zabal begiratzen zidan. Buruan neronek egin nion “ilima lei-a” janzten zuen, bekokian neronek jarri niona. Yatekoak euren lore-girnaldak kanoetakoei, kuttu-nei, jaurkitzen hasi ziren. Nik ez nuen itxaropenik... eta hala ere, zain nengoen, ahul, nire begitarteak ikus ezin zitekeen melankoliaz, besteak bezain alai eta harro. Baina Lilolilo-k nik banekiena egin zuen, egingo lukeena hasieratik bertatik nekiena. Zabal eta tinko niri begiratzeari utzi gabe, nire “ilima lei” ederra hartu eta puskatu egin zuen. Mutu, haren ezpainek hitz bakarra ahoskatu zuten, “pau”, kito. Niri begiratzeari utzi gabe, “lei-aren” bi erdiak berriro puskatu eta bi zatiak nahita jaurki zituen, ez nire aldera, baizik gu bereizten zihoakigun uretara. “Pau”. Dena amaituta zegoen.

Denbora luze batez, Bella-ren begirada distraituak zeruertzearen lerro gainean hartu zuen atsedean. Martha, bere begiak bustitzen zituen urrikaltasuna hitzez adieraztera ez zen ausartu.

—Arratsalde hartan bertan, Hamakua-ko kostaldearen paretik doan bide neketsuari ekin nion —laburbildu zuen Bella-k hasieran lehor eta erlats ateratako ahotsaz—. Lehendabiziko eguna zen eta ez zen hain zaila izan. Ez nuen ezer sentitzen. Ahaztu behar nuenaren aurrean oraindik ere harrituegi nengoen, ahazten saiatzeko ere. Gaua Laupahoe-n igaro nuen. Loak hartu ezin izango ninduela uste nuen; aitzitik, zaldiz hain luzaro ibiliaz

nekatu rik, sorgor oraindik, hilik benengo bezala lo egin nuen.

Hurrengo egunean, ordea, haizea amorraturik eta euria barra-barra aritu ziren. Haize izugarri handia zebilen eta euri zaparradak ikaragarriak ziren! Bidea ibilgaitza zen guztiz. Gure zaldiak behin eta berriz lurrera erortzen ziren. Hasieran, osaba John-ek utzi zidan unaia protestaka ibili zen. Gero, estoizismoz nire atzetik ibiltzera mugatu zen, bada-ki, burua astinduz eta “pulule” nengoela behin eta berriz marmartuz. Kukuihaele-n ordezeko zaldia utzi genuen. Mud Lane ia-ia igerian zeharkatu behar izan genuen, lohizko ibaia bilakaturik baitzegoen. Hilo-k, ordea, bukatu arte agoantatu zuen. Egunsentitik gauerdira arte, zela gainean jarraitu nuen, harik-eta osaba John-ek, Kilohana-n zegoeneko, bere besoen artean jaitsi ninduen arte; gero, etxean sartu eta emakumeak iratzarri egin zituen, biluztu eta laztandu nintzaten, berak pontxe bero bat edanarazi eta lotara eta ahantzira bultzatzen ninduen artean. Zurrumurruen eta eldarnioen artean, gauza askoren berri eman omen nuen. Osaba John-ek dena jakingo zuen. Baina sekula ez zion inori hitzik esan, ezta niri ere. Iragarri egin zuena giltzapean itxi zuen Naomi-ren gela tabuaren barruan.

Oroitzapen lausoa geratu zait egun hartaz, nire bihotz apurtuak sentitzen zuen minaz, patuaren aurka gordeta neukan amorru zitalaz, bizkarra azotatzen ninduen eta euritearen azpian zauritzen ninduen nire ile-adats aske eta busti-bustiaz, uholdea-

rekin bat egiten zuten nire malko amaigabeez, nire amorrualdi grinatsuaz, mundu oker eta gaizto honen aurkako nire gaitzondoez, zelako perilaren gainean eskuaz ematen nituen kolpeez, laguntzen zidan unaiari zuzentzen nizkion hitz zakarrez, Hilo gizarajo eta bikainaren aldaketan behin ta berriz sartzen nituen ezproieiz, artean nire barrurako otoitz egiten nuela ezproikadak zirela-eta zaldia zutitu ez zedin, bultza ez zezaten nire gorputzaren gainean erortzera, bere gorputzaz ni zapalduz eta gizonen begien aurrean edertasunik gabe betirako ni utziz, edota behartu ez nintzan bide-zidorretik ateratzera “palis-aren” (amildegiaren) oinean hiltzeko, horren ostean nire izenean idatziko zuten “pau-a” Liloliloren ezpainez ahoskatu ez zutena bezain erabatekoa izango baitzen (nire “lima lei-a” puskatu eta uretara jaurki zuenean).

George-k beste egun batzuk igaro zituen Honolulu-n. Nahala-ra itzuli zenean, ni bertan nengoen zain. Ohituraz besarkatu egin ninduen, hoztasunez musu eman zidan ezpainenetan, mihina serio-serio arakatu zidan, nire itxuraz eta nire osasun-egoeraz kezkatu zen eta sukaldeko zirrin-dola epelekin eta bakailao-gibelaren oliokada dosi ederrarekin bidali ninduen lotara. Erloju baten makinariarekin bat egin banu bezala, gurrpil bat gehiago bilakatu, etengabe biraka eta biraka eta bihotz-zimikorik gabe, halaxe ere egin nuen bat Nahala-ko bizitza grisarekin. Goizero, George-k lau t'erdietan jaiki eta bostetan zamalkatzen ari zen jada. Betiko olo-ahiak, kafe merkea, okela freskoa eta zezina

itzuli ziren... Nik sukaldatu, ogia oratu eta harrikoa egiten nuen. Josteko makina absurduaren gupila jirarazten nuen eta nire “holoku” merkeak egiten nituen. Gau baten eta bestearen ondoan, bi urte haiek iruditu zitzaizkidan mende amaigabeetan, mahaira haren aurrean eseri nintzen arratsaldeko zortziak arte, haren galtzerdi merkeak eta barruko arropa baldar eta higatua adabatzen, artean hark aurreko urteetako aldizkariak irakurtzen zituen (uzten zizkieten aldizkariak, harpidetza egiteari uko egiten baitzion dirua aurrezteagatik). Eta gero, lotarra joateko ordua heltzen zen (kerosenoa aurreztu beharra zegoen) eta bere erlojuari giltza ematen zion, eguneko tenperaturak bere agendan idatziz jarri, zapatak eskubiko oinetik hasita erantzi, eta bata bestearen ondoan jartzen zituen, ohearen oinuan, okupatzen zuen ohe aldean beti.

Baina ordurako George-k ez ninduen erakartzen (Lihue printzesak bere segizioarekin elkartzera gonbidatu nindueanean bezala eta osaba John-ek bere zaldia utzi zidanean bezala). Martha, horretatik ezer ez zatekeen gertatuko, osaba John-ek Hilo utzi izan ez balit. Baina halaxe egin zuen; eta maitasuna eta Lilolilo ezaguturik, zer aukera izan zezakeen ordurako George-k nire bihotza, nire estimua eta nire maitasuna irabazteko? Nahala-n igarotako bi urte haietan, emakumea baino, gorpua izan nintzen: ibiltzen nintzen, eta hitz egiten nuen, eta ogia oratzen nuen, eta harrikoa egiten nuen, eta galtzerdiak adabatzen nituen eta kerosenoa aurreztu nuen. Sendagileen esanetan, neurri handi ba-

tean, hain higaturik zegoen barruko arropa haren erruz gaixotu zen, neguko euri zaparrada etengabeen azpian Nahala mendietako urak, beti bezala, eskuratzean tematurik zebilen artean.

Hil zenean, ez zitzaidan damu izan. Denbora luzeegia neraman triste. Alaitu ere ez nintzen egin ordea. Nire alaitasuna Hilo-n hil zen, Lilolilok nire “ilima lei-a” itsasora jaurki zuenean. Orduz geroztik, nire oinak ez ziren berriz ere zoriontsuak izan. Lilolilo nire senarra baino hilabete berandua-go hil zen. Hilo-tik abiatu zenetik, bera ez nuen gehiago ikusi. Orduz geroztik, ezkongai asko izan ditut, baina nik osaba John bezalakoa naiz. Maitale bat eta besterik ez. Osaba John-ek Naomi-ren gela Kilohana-n zuen. Berrogeita hamar urteotan, Lilolilori nire bihotzean eman diot ostatu. Zu zara, Martha, bertan sartzen utzi diodan lehen pertsona.

Etxera zeraman etorbide biribilari ibilgailu batek buelta eman eta Martha-ren senarra jaitsi zen bertatik; jarraian, bi emakumeak zeuden tokirantz abiatu zen. Tente, lirain, ileurdin, dotore eta militar itxurako, Roscoe Scandwell “bost handikietariko” bat zen, interes-sare baten bitartez Hawaii osoko patuak erabakitzen zituena. Ingalaterra Berrian jaiotako “haole” peto-petoa zen. Lehenik Bella besarkatu zuen, bihotz-bihotzez musu ematen ziola (Hawaii-n egiten zen bezala). Haren begi zoliak ohartarazi zionez, emakume arteko sekretuak izan ziren han, eta emozio ugarien arrastoa antzeman

bazuen ere, bi emakume haien bukaera zuhurrean ordena eta lasaitasuna ziren nagusi.

—Elsie eta umeak etortzekoak dira. Untzitik igorri didan kablegrama hartu berri dut —iragarri zuen emazteari musu eman eta gero—. Maui-rantz jarraitu baino lehen, egun batzuk igaroko dituzte gurekin.

—Gela arrosa utzi nahi nizun, Bella —esan zuen Martha-k ahots ozenez pentsatuz—. Baina hobe izango da gela horretan bera, umeak eta umezainak sartzea. Emma erreginaren gela emango dizut.

—Hori da azken aldian utzi zenidana eta gehien gustatzen zaidana —esan zuen Bella-k.

Roscoe Scandwell-ek, hawaiiar-ren maitasunaren eta adierazpidearen ezagutzaile fina izanik, hain neurri nobleko bi emakumeen artean tente, lirain eta duin, besoez bi gerri bikain haiek inguratu zituen, eta, elkarrekin, etxe alderantz abiatu ziren hirurak.

AMAIERA